

**1/2019 ZIRKULARRA, URRIAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-
BATZORDEARENA.****HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZU ZUZENDARITZAK EDO KUDEAKETA EKONOMIKOAREN
ZUZENDARITZAK ETA ORGANISMO AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK.****HELBURUA: KONTRATU ERRESERBATUAK, LANERATZEKO ENPRESAK ETA GIZARTE-
EKIMENEN ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK**

Aholku Batzorde honen Idazkaritza Nagusian kontsulta batzuk jaso ditugu Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko Erabakia, erreserbatutako kontratuei buruzko jarraibideak onartzen dituen, betetzeko moduari buruz; hori dela eta, zirkular hau ematen dugu, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28. artikulua c) letrak Batzorde honi ematen dion eskumena. Dekretu horren 30. artikulua zehazten du, gainera, Batzordearen Osoko Bilkurari esleitutako eginkizunetako bat dela.

Hona hemen goian aipatutako jarraibideen testua:

“ERRESERBATUTAKO KONTRATUEI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kontratazio-organoek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (azaroaren 8ko 9/2017 Legea, zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira) VI. eranskineko CPVak dauzkaten espedienteak izapidetzen dituztenean, kontratu erreserbatu gisa izapidetu beharko dituzte, gutxienez ere, halakoak izan daitezkeen kontratuen lizitazioetako oinarri-aurrekontuen % 5 egiten dutenak (erreserbatuak izan daitezkeen kontratuetan urte bakoitzean metatutako zenbatekoa, BEZik gabe). Hau da, CPV horietakoren bat daukaten kontratu guztien lizitazioetako oinarri-aurrekontuen zenbatekoa, BEZik gabe, 1.000.000 euro baldin bada, guztira 50.000 euro egiten duten kontratuak izan beharko dira, gutxienez, kontratu erreserbatuak.



Erreferentziako zenbatekoa urtean urtekoa izango da beti, 2018an izan ezik. 2018an, legea indarrean jartzen denetik abenduaren 31ra arteko zenbatekoa bakarrik izango da erreferentzia.

Kontratu txikiei dagokienez, haien CPVa halako moduan kontsignatu beharko da non bai guztizko zenbatekoetarako bai erreserbatutako portzentajerako konputatuko baitira.

Aurretiaz izapidetutako kontratuen zenbatekoak, azkenik, kontratu horiek izapidetzen hasten diren urterako konputatuko dira, eta ez gauzatzen hasten diren urterako.

Aipatutako erreserba-portzentajera iristen ez bada, arrazoia justifikatu egin beharko da memoria batean. Bertan azaldu beharko dira CPV horietan lizitatutako guztizko zenbatekoak, erreserbatutako zenbatekoak, eta % 5era iritsi ez izanaren arrazoia.

Kontratuen erreserbari buruzko memoria Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzara bidali beharko da, erreserba egin eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen.”

Horren arabera, argitu behar da erreserbatu gisa izapidetu behar direla –eta horrela markatu lizitazio elektronikoaren aplikazioan, garrantzitsua baita gero informazioa lortu ahal izateko– aurreko aurrekontu-ekitaldiko Erabakian adierazitako CPVekin lizitatutako kontratuen lizitazioetako oinarri-aurrekontuen zenbateko globalaren %5, BEZik gabe. Kontratu horiek dira, hain justu, 9/2017 Legearen VI. Eranskinean jasotakoak (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Bada, Legeak eta Erabakiak jasotako numeraziotik harago, hau da aipatzen diren CPVen eduki zehatza:

Garbiketa-zerbitzuak:

90610000-6 Kaleak garbitzeko eta erraztatzeko zerbitzuak

90611000-3 Kaleak garbitzeko zerbitzuak

77211500-7 Zuhaitzak mantentzeko zerbitzuak

77310000-6 Berdeguneak landatzeko eta mantentzeko zerbitzuak

77311000-3 Lorategiak eta parkeak mantentzeko zerbitzuak

77313000-7 Parkeak mantentzeko zerbitzuak

77314000-4 Lurrak mantentzeko zerbitzuak

90917000-8 Garraiobideak garbitzeko zerbitzuak

77211400-6 Zuhaitzak mozteko zerbitzuak

90910000-9 Garbiketa-zerbitzuak.

90911300-9 Leihoak garbitzeko zerbitzuak



90919200-4 Bulegoak garbitzeko zerbitzuak

90690000-0 Pintadak garbitzeko zerbitzuak

Bilketa- eta birziklatze-zerbitzua:

90511300-5 Zaborrak jasotzeko zerbitzuak

90511400-6 Papera jasotzeko zerbitzuak

90531000-8 Zabortegi publikoak kudeatzeko zerbitzuak

Baso-zerbitzuak:

77200000-2 Baso-zerbitzuak

77231000-8 Basoak kudeatzeko zerbitzuak

77231800-6 Baso-mintegiak kudeatzeko zerbitzuak

77312000-0 Belar-sastrakak garbitzeko zerbitzuak

77312100-1 Sastrakak garbitzeko zerbitzuak

79930000-2 Diseinuko zerbitzu espezializatuak

Ikuztegiko zerbitzuak:

98311100-7 Ikuztegiak kudeatzeko zerbitzuak

98311200-8 Ikuztegiak ustiatzeko zerbitzuak

98312100-4 Ehunezko gauzak inpregnatzeko zerbitzuak

98314000-7 Kolorazio-zerbitzuak.

98315000-4 Lisaketa-zerbitzuak

98311000-6 Ikuztegiko bilketa-zerbitzuak

Ostalaritza- eta otordu-zerbitzua:

79952000-2 Ekitaldi-zerbitzuak

55130000-0 Beste ostalaritza-zerbitzu batzuk

79952100-3 Kultur-ekitaldiak antolatzekeo zerbitzuak

55120000-7 Hoteletako bilera- eta kongresu-zerbitzuak

79950000-8 Erakusketak, azokak eta kongresuak antolatzekeo zerbitzuak

55512000-2 Kantinak kudeatzeko zerbitzuak

55330000-2 Kafetegi-zerbitzuak

55400000-4 Edari-hornikuntzarako zerbitzuak

55410000-7 Tabernak kudeatzeko zerbitzuak

Garraio-zerbitzuak:

60112000-6 (1) Bide publikoko garraio-zerbitzuak



Inprimategiko zerbitzuak:

- 79824000-6 Inprimaketa- eta banaketa-zerbitzuak
- 79821000-5 Akabera- eta inprimaketa-zerbitzuak
- 79820000-8 Inprimaketari lotutako zerbitzuak
- 79800000-2 Inprimaketa-zerbitzuak eta haiei lotutako zerbitzuak
- 79810000-5 Inprimaketa-zerbitzuak
- 79823000-9 Inprimaketa- eta entrega-zerbitzuak
- 79971000-1 Liburuak koadernatzeko eta akabatzeko zerbitzuak
- 79971200-3 Liburuak koadernatzeko zerbitzuak
- 79971100-2 Liburuak akabatzeko zerbitzuak

Gizarte-zerbitzuak:

- 85320000-8 Gizarte Zerbitzuak
- 85312000-9 Ostaturik gabeko gizarte-laguntzako zerbitzuak
- 85300000-2 Gizarte-laguntzako zerbitzuak eta haiei lotutako zerbitzuak
- 85310000-5 Gizarte-laguntzako zerbitzuak

Biltegiatze- eta banatze-zerbitzuak:

- 63100000-0 Zamatze- eta biltegiatze-zerbitzuak
- 63120000-6 Biltegiatze- eta gordailutze-zerbitzuak
- 63121100-4 Biltegiatze-zerbitzuak.

Ostatu eta landa-turismoko zerbitzuak:

- 63500000-4 Bidaia-agentzien, operadore turistikoen eta turistei laguntza emateko zerbitzuak
- 75125000-8 Gai turistikoei lotutako administrazio-zerbitzuak

Administrazio-lanetako zerbitzuak:

- 92500000-6 Liburutegi-, artxibategi- eta museo-zerbitzuak eta beste kultur zerbitzu batzuk.
- 92510000-9 Liburutegi- eta artxibategi-zerbitzuak
- 92511000-6 Liburutegi-zerbitzuak
- 92512000-3 Artxibategi-zerbitzuak
- 79500000-9 Bulego-eginkizunetako laguntza-zerbitzuak
- 98341120-2 Atezaintza-zerbitzuak
- 98341130-5 Etxezaintza-zerbitzuak
- 79511000-9 Telefono-operadorearen zerbitzuak
- 92520000-2 Museoak eta toki eta eraikin historikoak zaintzeko zerbitzuak
- 92521000-9 Museo-zerbitzuak
- 92521100-0 Museoetako erakusketeta-zerbitzuak

72312000-5 Datuak sartzeko zerbitzuak

Kudeaketako eta lan osagarrietako zerbitzuak:

45233294-6 Bide-seinaleak instalatzea

45316000-5 Argiak- eta seinaleztapen-sistemak instalatzeko lanak

79993100-2 Instalazioak kudeatzeko zerbitzuak

79993000-1 Eraikinak eta instalazioak kudeatzeko zerbitzuak

Posta- eta publizitate-zerbitzuak:

79571000-7 Postazko bidalketa-zerbitzuak

79340000-9 Publizitate- eta marketin-zerbitzuak

79341000-6 Publizitate-zerbitzuak

64121100-1 Posta banatzeko zerbitzuak

64121200-2 Paketeak banatzeko zerbitzuak

79520000-5 Erreprografia-zerbitzuak

79920000-9 Paketatze-zerbitzuak eta haiei lotutako zerbitzuak

79921000-6 Paketatze-zerbitzuak

Mantentze- eta konpontze-zerbitzuak:

45422000-1 Arotzeria eta ebanisteria

45420000-7 Zur-arotzeriako elementuak instalatzeko lanak

50850000-8 Altzariak konpontzeko eta mantentzeko zerbitzuak

45262500-6 Harlangaitzezko eta arotzeriako lanak

45262520-2 Arotzeria-lanak

50000000-5 Konpontze- eta mantentze-zerbitzuak

71314100-3 Elektrizitate-zerbitzuak

45330000-9 Iturgintza-lanak

45442100-8 Pintura-lanak

50232200-2 Zirkulazio-seinaleak mantentzeko zerbitzuak

45262680-1 Soldadurak

45259000-7 Instalazioak konpontzea eta mantentzea

50115000-4 Motozikletak konpontzeko eta mantentzeko zerbitzuak

Urte-sasoiko landareen, konpostaren, landare eta zuhaixken, lorategiko altzarien eta abarren ekoizpena eta salmenta...

03121100-6 Landare biziak, erraboilak, sustraiak eta aldaxkak

03451300-9 Zuhaixkak

39142000-9 Lorategiko altzariak

03110000-5 Kultiboak, lorazaintzako eta baretzezaintzako merkataritza-produktuak

Esku-xaboi enekoizpena eta salmenta:

33711900-6 Xaboa

33741100-7 Esku-xaboa

39831700-3 Xaboi-banagailu automatikoak

Zurezko sukalde-tresnen ekoizpena eta salmenta:

39220000-0 Sukalde-ekipamenduak, etxeko gauzak eta otorduetarako gauzak

44410000-7 Bainugelako eta sukaldeko gauzak

39221100-8 Sukaldeko tresnak

39221180-2 Janaria prestatzeko tresnak

39141000-2 Sukaldeko altzariak eta ekipamendua

Arotzeriako altzarien ekoizpena eta salmenta:

39100000-3 Altzariak

03419100-1 Zurezko produktuak

37800000-6 Artisanu-lanetarako eta lan artistikoetarako gauzak

37810000-9 Artisanu-lanetarako gauzak

Salmenta eta banaketa:

30199000-0 Papergintzako gauzak eta beste gauza batzuk

39000000-2 Altzariak (bulegokoak barne), altzarien osagarriak, etxetresnak (argiztapena izan ezik) eta garbiketa-produktuak

Ekitaldietarako gauzak:

18530000-3 Opariak eta sariak

Enpresa-opariak:

39516000-2 Altzari-gauzak

39295500-1 Euritako, eguzkitako, bastoi eta antzeko gauzen zatiak, apaingarriak eta osagarriak.

39561140-5 Eskudelgintza- eta apaindura-gauzak

39200000-4 Altzari-osagarriak

39290000-1 Askotariko altzari-osagarriak

39170000-4 Dendako altzariak

44111300-4 Zeramika

39298900-6 Askotariko dekorazio-gauzak

44812400-9 Dekorazio-gauzak

Hala bada, aurreko ekitaldiko kontratuetan lan horiek sartzen badira, %5 zenbatuko da.

Baina argi izan behar da zerrenda hori itxita dagoela soilik zenbaketa horren ondorioetarako, hau da, beste lan edo jardueretarako kontratuak erreserba daitezkeela.

Informazioa nahi izanez gero laneratze-enpresei, gizarte-ekimeneko izaera aitortuta daukaten enplegu-zentro bereziei eta horiek garatzen dituzten jardueri buruz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web orrian kontsulta daiteke (<https://www.lanbide.euskadi.eus>– EAEn enpresa eta zentro horiek kalifikatzeko eta erregistratzeko eskumena duen organismoa den heinean.)

Horretaz gain, EAEn laneratze-enpresa gehienak biltzen dituzten elkarteek (GIZATEA) eta gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziak biltzen dituztenek (EHLABE) ere eman dezakete gai honen inguruko informazioa.

Horri dagokionez, garrantzitsua da honako hau adieraztea: batzuetan, GIZARTE-EKIMENEOak EZ diren enplegu-zentro bereziak aurkeztu izan dira erreserbatu bezala izapidetutako kontratu-lizitazioetara, eta hori ez dator bat SPKLak bere laugarren xedapen gehigarrian eskatu, eta azken xedapenetako hamalaugarrenean definitzen duenarekin, zeinak aldatu egiten baitu desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak hainbat aldiz adierazi du (guztiengatik, 129 eta 130/2018 Ebazpenak) guztiz legezkoa dela eta 2014/24/EB Zuzentarauaren 20. eta 36. artikuluekin bat datorrela Espainiako legegileak gizarte-ekimenaren definizio horrekin ezarri duen diskriminazio positiboa. Beraz, GIZARTE-EKIMENEO enplegu-zentro bereziek baino ezin dute parte hartu, laneratze-enpresekin batera, erreserbatutako kontratuen lizitazioetan.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren Erabakiak aipatzen duen urteko memoriari dagokionez, testutik ez da ondorioztatzen aurkeztu behar dutenik, ez markatutako % 5era iritsi direnek, ez ez direnek, baina Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak berrikusi egingo du hurrengo urteetan, zirkular honen hartzaile guztiei eta beren sailei atxikitako kontratazio-organoei dagokienez, eta, beraz, beti bidali beharko da, aztertua izan eta hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen, bat etorritz Erabakiak dioenarekin.

Horretarako, taula hau ezarri da, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari bitarteko elektronikoen bidez bidali beharreko informazioarekin:

I. ERANSKINA: MEMORIA-EREDUA, GOBERNU KONTSEILUAREN KONTRATU ERRESERBATUEI BURUZKO ERABAKIA BETETZEKO

SAILA EDO OAAA	ERRESERBA DAITEZKEEN KONTRATUEN ZENBATEKOA	ERRESERBA DAITEZKEEN KONTRATUEN % 5	BENETAN ERRESERBATUTAKO KONTRATUEN ZENBATEKOA	BENETAN ERRESERBATUTAKO KONTRATUEN %	ZERGATIK EZ DEN % 5 LORTU, HALA BADAGOKIO